



Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailburuak, guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzen duena.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez, guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu zen.

Proiektu hau izapidetzeko ardura Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritza Zuzendaritzari eman zitzaion.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldeztu aurreko onarpena beharko dute, dagozkion negoziatze-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Azaldutakoagatik, landutako proiektuaren testua ikusita, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen dekretu-proiektua testua aldeztu aurretik onartzea.

Bigarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburua.

NEREA MELGOSA VEGA

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 - VITORIA-GASTEIZ

